

BASERRIEN HUTSUNEA

Hutsik geratu direlako, suteak tarteko,
bota eta etxe berriak egin dituztelako...
Gero eta baserri gutxiago, gurean 20



**UROLA
AUTOESKOLA**

Tel. 943 81 26 66 943 81 35 06

Prezio interesgarriak

Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera

www.urolaautoeskola.com



Urola

PSIKOTEKNIKOA

GIDABAIMENAK, ARMAK eta ANIMALIAK



MILAR

LARRAMENDI

ELEKTRO & SUKALDEAK



MILAR
ZURE AMETSETAKO SUKALDEA
LA COCINA DE TUS SUEÑOS

SUKALDEETAN ZER NAHI,
HORIXE DAUKAGU ZURETZAT

ZURE ETXERAKO BEHAR DUZUN GUZTIA DAUKAGU, 10.000 ERREFERENTZI BAINO GEHIAGO
ETA PREZIO EZIN HOBEAN. EGUN BATETIK BESTERA EKARTZEN DUGU.

AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16 Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



MAIATZAREN 31tik UZTAILAREN 31 arte

ESKAINZA IZUGARRIAK!!!

ZATOZ GURE ERAKUSKETARA!



uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 163.a (2014ko uztaila)
Urtea. XV.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio
 eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 667 310 961/
 uztarrria@uztarrria.com
Bazkietza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Juan Joxe Agirre
Webgunea.
www.uztarrria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritzaren Gobernua



Azpeitia udala

Uztarriak Bai Euskarari
Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2014KO UZTAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Inguruko zein hondartza duzu gustukoena? **13**

mamia

Irene Larrañaga. ETBko albistegietako arloburua da azpeitiarra **04**
Oier Etxeberria. Cristina Enea Fundazioan egiten duen lanaz, eta bestelakoez **16**
Urolab. Abian da gurean ekintzailtza sustatzeko taldea **18**

jakiteko

Gure Ametsa. 50 urte bete dituen soziedadeaz, sortzaileetakoekin **34**

Ba al dakizu mireia epeledek txirrindu laritza utziko duela irailaren amaieran? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrarian



943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarraren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1** eta **biografiak txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira **urtean.** 110.000 euroko aurrekontua 2014an.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrique Zurutuza, Maria Jesus Arregi

IRENE LARRAÑAGA

kazetaria

“Jendeak informazio gehiegi dauka orain”

Kazetaritzaren ia adar guztietan lan egin ostean, ETBko albistegietako gizarte arloburua da azpeitiarra, azken hiru urte erdian. 📝📷 Julene Frantzesena

Euskadi Irratian, Loiolako Herri Irratian, *Navarra Hoy* egunkarian, ETBn eta Bainen zein K2000 ekoiztetxeetan lan egindakoa da Irene Larrañaga. Kazetaritzaren alderdi desberdinetan aritutakoa da. Hala nola, tokiko informazioan, kamera aurrean ala atzean, erredaktore moduan, koordinazioan... Eta, egun ETBko albistegietako gizarte arloburua da. Irratian bekadun hasi zenetik hona “gauzak asko aldatu” direla dio.

Denetik egin duzu kazetari ibilbidean.

Hala da. ETBko albistegietan kazetari hasi nintzen, eta hainbat gazetan aritu ostean, albistegietan naiz berriz. Tartean, kateko hainbat saiotan jardun nuen.

Gero, ekoiztetxeetan egin nituen ETBrako lanak. Denetarik egin dut; irrati-esatari, kazetari, gidogile, erredaktore, koordinazioan...

Probatu duzunetik, zer gus-tatu zaizu gehien?

Gehien gustatzen zaidana dokumentalak eta erreportajeak egitea da. Gai bat hartu eta denbora luzez lantzeko aukera ematen dizute ikus-entzunezkoek. Oraingo lana frenetikoa da. Dokumentalak-eta egiten dituzunean gaiak jorratzeko astia duzu, nahiz eta urduritasun oneak ere pasatu.

Zer dela eta zara albistegietako arloburua?

K2000ko dokumental taldean gidoilari ari nintzela, orduan zuzendari zenari albistegietako zuzendariorde izatea proposatu zioten.

|| DATUAK ||

|| **Jaio.** 1972ko abuztuaren 8a.

|| **Herria.** Azpeitia. || **Bizi tokia.** Donostia. || **Lanbidea.** ETBko albistegietako gizarte arlo-burua.

Gero, hark albistegietan hasi nahi al nuen galdetu zidan, eta hiru urte eta erdi daramatzat horretan. **Zer behar da arloburu izateko?**

Batetik, erabakiak hartzen jakitea. Eta, bestalde, inplikatzeko gogoia edukitzea eta egiten duzuna go-goarekin egitea. Gogoia izanez gero, edozein kazetari izan daiteke arloburua. Txikitatik nahi nuen kazetari izan edo gauzak kontatu. Hori da behar dena, jendeari gauzak kontatzeko gaitasuna. Orain arloburua naiz, baina bizitzak buelta asko ematen du. Orain ar-

dura daukat, baina zeinek daki non eta zertan ariko naizen biz-pahiru urte barru.

Gustuko lana al duzu?

Lan honetan harrapatzen zaitu egun guztiak desberdinak izateak. Behin ere ez duzu egun berdini izaten. Ez dago errutinarik, eta horrek laguntzen du hainbeste orduz lan egiten. Goizean 05:45ean jaikitzen naiz, eta egunkari azalak irakurri eta irratia entzuten dut. Gero, lanera joaten naiz eta, igoal, 11:00etan espero ez dudana zerbait dator... Gainera, aldaketa handia izan da albistegietara itzultzea. Bizimodua aldatu zait. Lan honek inplikazio handia eskatzen du, eta orain urtean bitan kanpora joaten naizenean deskonektatzen dut.



Zein da zure eginbeharra?

Asko aldatu da kazetaritza egiteko modua. Informazioa bide ofizialetatik ez ezik, sare sozialetatik-eta jasotzen dugu. Informazioaren erritmoa azkarragoa da orain. Hiru albistegi izaten dira egunean. Aurreko egunetik gaiak nondik nora joango diren aurreikusten dut, baina goizeko bileran aukeratu ditugu eguneko gaiak. Gero, kazetarien lana dator, eta albistegia hasi bitarte-

an, hainbat gauza egiten dugu. Finen, etortzen den informazioa kudeatzen datza arloburuaren lanak, eta eduki eta pertsonen arteko koordinazioan aritzean.

Ardura handiko lana al da?

Hasieran lan arduratsua zela iruditzen zitzaidan, eta bada, baina ohitu naiz. Estres handiko lana da. 24 ordu egon behar duzu aktualitateari begira, eta horrek ez deskonektatzea dakar. Gusturago, eta kazetaritzan gauzak

dauden bezala egonda, iraun dezala...

Gizarte arloburua zara. Baina zer da gizartea?

Albistegietan bost ataletan banatzen dira gaiak: kultura, nazioartea, politika, ekonomia eta gizartea. Beste lau arloetako gauzak kendu, eta gelditzen den guztia sartzen den saski-naskia da gizartea. Hasi denboraleetatik eta abortuaren legea edo istripuak ere izan daitezke gizarteko albiste. Albistegiaren baitan malgutasun handiena duen arloa da. Egun batean eduki dezake izugarriko presentzia eta hurrengoan ez, eta da jendez eta edukiz gehien aldatzen den atala.

Zer baztertu eta zer ez?

Aktualitateari lotuta egon eta jasotako informazioa eman behar duzu. Albisteak eman behar dituzu, eta jendea informatu. Gauza asko sartzen da gizartean, eta aukeratu egin behar da zer bai eta zer ez. Dena da gizartea, zehazki, ekonomia, politika edo kultura ez bada, behintzat.

Denen gustua egitea posible al da?

Gure lana da informatzea, ahalik eta objetiboan eta aniztasun handienarekin. Kate publikoa da, baina denen gustua egiterik ez dago. Ahaleginduko zara, baina beti datoz kritikak, alde batetik edo bestetik. Gure eginbeharra da jendeari daukagun informazioa ematea, ahal den guztiena iritsiz. Baina, ezinezkoa da denen gustua egitea.

Zaila al da Euskal Herriko

herrialdeen arteko oreka bilatzea?

Bai, oso. Bilbon dago albistegien egoitza, eta Euskal Herrian korrespontsaliak daude Gasteizen, Iruñean, Donostian eta Baionan. Beti esan izan da Bilboko telebista dela ETB, baina nik uste dut oreka mantentzen dela. Hori bai, nahi eta nahi ez, jende gehiago bizi da Bizkaian, eta informazio gehiago sortzen da han, egoitza ere han dago... Dena den, saiatzen gara Iparraldeko informazioa ere sartzen. Gehiago egin beharoko litzatekeela? Ziur baietz, baina saiatu, saiatzen gara.

Nafarroan, berriz, ETB ikusteko arazoak dituzte.

Nafarroako gobernua nahi izan arte ezinezkoa izango da han ETB arazorik gabe ikustea. Guk egunero ditugu Nafarroako albisteak, ematen ditugu, eta orain nafarrek analogikoan soilik ikusi ditzakete. Gogoia eta nahia bada, baina arazoa politikoki konpontzen ez den bitartean...

Telebistak eragin handia du jendearengan.

Hedabideek informatzeaz gain, gauza asko egin ditzakete. Egunero jasotzen ditut indarkeria matxistaren inguruko albisteak, eta informatzeaz gain, informazio hori bideratu behar duzu eraginkortasuna izan dezan. Jendeari azaldu behar diozu zer egin dezaken indarkeria matxista jasaten ari bada. Kasu horietan, ez da informatu soilik egin behar.

Nola ikusten duzu telebista-erorkizuna?

Asko aldatu da telebista egiteko modua. Jendeak informazio gehiegi dauka orain. Lehen egunkaria irakurtzen zenuen, eta irratia zuen informatzeko biziak zuten handiena. Orain, Internetera konektatuta zaudenetik, uneoro duzu informazioa. Hor dago etorkizuna nire ustez. Nork esan behar dio 18-20 urteko gazte bati telebista zer ordutan eta zer ikusi behar duen? Interneten du nahi duena eta nahi duenean. Hori da etorkizuna. Oraina ere bai.★

“Kate publikoa da, baina denen gustua egiterik ez dago”

“Lan honetan behin ere ez duzu egun berdinek izaten”

Zertaz idatzi?

Normalean hil osoan zehar joaten naiz idatzi nahi dudana pentsatzen. Ideia ugari izaten ditut buruan bueltaka, zurrumbilo moduko bat, azken egunean botaka balitz bezala ateratzen zaidana. Nahiz eta presioa eta estresa ez diren bidelagun onak, ezin dut ukatu ezinbesteko ditudala ideia festa hori Word dokumentu batean gorpuzteko. Ekainetan, ordea, azterketek eta lagunekin eginiko oporraldiak eragin didaten deskonexoagatik, ez dut ezer ere pentsatu. Uste dut bikain etorri zaidala, gainera. Sekulako sententzioa da eguneroko bizitzaz ahaztea, denboraldi labur batez bada ere. Ez uste?

Lerro hauek idazten hasteak garuna mar txan jarri didala uste dut. Oporraldian bizi izandako zenbait momentuz oroitzen naiz, lagunartean eginiko barreez, Poloniako garagardoak lagunduriko barru husteez eta itzultzeko eguna iritsi zenean izan genuen hanka artekoaz. Denbora gutxiegi pasatzen dugu lagunekin. Edo, pasatzen duguna ez dugu behar bezala erabiltzen? Kontua da eguneroko bizitzak, errutinak, ohiturek, betebeharrak eta abarrek geure buruaren baitan ixten gaituztela, arazoak, zalantzak edo esperientziak partekatzeko espaziorik gabe utziz.

Horrela, konturatu ere egin gabe, benetan inporta duten gauzak alde batera uzten joaten gara. Bidaian zehar konturatu naiz zein erraz galtzen diren konfiantzak lagun arteko harremanetan. Bizitzak norbere bidera garamatza, eta bide hori zeharkatzen goazen heinean, betiko lagunengandik aldentuz goaz. Nahiz eta jende multzo handiak harremana mantendu, harreman horiek eusten dituzten sokak gero eta ahulagoak dira, edo sinpleagoak, eta horretaz konturatzeak tristura handia ematen du. Aldi berean, egia da beste harreman batzuk eraikitzen goazela, askotan ustekabean, nahi gabe.

Halere, ez dut gehiegi dramatizatu nahi. Ziurrenik urteak ez dira alferrik pasatzen, eta gauza hauen kontzientzia hartzeak ere poz



||||||| **hodei mendinueta** |||||

||| **Eta egia da lagunek ez dutela hutsik egiten, behar ditugunean beti agertzen direla**

ematen du. Bereziki, lagun artean egotean aldamenekoari arreta gehiago jartzeko beharraz ohartzen naiz orain. Nola bizi garen, gure gorabeherak, ahuleziak eta bizipenak elkarbanatzea baino sententzio ederragorik ez dakit dagoen. Arazoen aurrean entzun eta laguntza emateko prest dagoen jendea izatea, arazoan aurrean aholkua eskatzera etortzea edota besterik gabe, lanean zer moduz dabilen kontatzea, sinplea bezain bikaina. Eta egia da lagunek ez dutela hutsik egiten, behar ditugunean beti agertzen direla.

Baina esan dudana bezala egunerokoak la-purtzen dizkigu une horietako asko. Errutinak azalekoak diren gaiak aterazten ditu mahai gainera, eta geuretzat baino nahiago izaten dugu besteen gorabeheraz hitzegitea. Trukean, parrandetako euforia edota *bajoi* momentuak dira gehienetan egunerokoan barrutik jaten gaituzten kontuak ateratzeko espazioak. Zergatik?

Bikaina izan da sei eguneko oporraldian bizi izan dudana, sokak indartu dizkigu, eta ez dut gezurrik esango, garagardoak bere papera jokatu du (*nasdrovia!!*). Egunerokoarekiko ezberdintasuna, egunean 24 orduz elkarrekin egoteko aukera izan da. Jarraikortasuna, denbora librea eta hitz egiteko gogo. Askatasuna, haustura eta eginbeharrak eza. Guztion buruetan antzerako gauzak daude, eta elkarbanatzeko espazioak behar ditugu. Errutina puta horrek, bizitza jaten digu. Harremanak zaindu egin behar direla erakutsi didate etxean, baina orain ari naiz horrek esan nahi duenaz konturatzen. Kaka zaharra, zahartzen ari naiz. ✘





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.** Inplantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutuzietako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomatu Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomatu. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomatu. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTASALUD, PADIL...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Gure hizkerie

Gure hizkerie earra dala esateko goue nauken gaur. Nola jardute deun azpeitiarrez, azkottiarrez, lasai ta sano: azpeitiarrez- azkottiarrez diyot ze azpeitiarrez jardun arren ama azkottiarra deu ta famili erdiye hangue, nik azkottiarra beti izen det be-larriyen ta barruen.

Pasayen lanien jardutie tokau zat azken denboran eta hamen, jendiek, euskeraz daki-benak batuan eitebe, geyenak; beste batzuk justu hitzeitebe ta beste batzuk, batez. Neuk erdaldunekin erderaz ta euskaldunekin sarritan erdi batua baten hitzeiten bukau izen det, ze azpeitiarrez hasi naizen bakoitzien etziben esaten nuna entendintzen.

Nere euskerie

Nahi detena adierazi da, ze ear dan bixitasun hori, freskurie, hitz gutxikin entenditzeko moue, parrafada lehor ta esplikaziyo luze ta dekoroso hoyek lagata alkarrekin errez jarduteko moue. Naon lekuen gustoa bizi naiz, baino nere barrenien beti dao herriko txispa hori, erten nayen bezela; ta ertetzeu askotan, baino iruditze zat hor beste era batea entenditze geala. Ta konturatze naiz nere euskerie, etxien ta herriyen ikixi nun hori dala benetakue ta biziye. Ta periodikotan, liburutan ta denboriekin ikisten jun nitzen hori, berriz, beste euskera desberdin bat dala, eta hor murgildute ta galdute sentitzeala nere barreneko parte bat.

Euskera batua inportantie dala ta hori dana badakit, baio intelektualtzen ai geala iruditze zat sarritan, batipat komunikabidetan ta, euskerie nortasunik peko gauze bat bezela ibiltze deula, naturaltasune ta benetako inderra galduiez. Hori kalien imitatzen hasten bagea, orduntxe aspertuko gea danok, ta gatzik peko ogiye bezela geauko gea azkenien. Askotan iruditze zat hobe genukela liburuek eo periodikue letu beherrien amamai eo attitiei bixita bat ein ta haren kontuek aitzea jungo bagineke, kafetxo bat hartute. Seguru



|||||||iosu salegi||||

|||Nahi detena adierazi da, ze ear dan bixitasun hori, freskurie, hitz gutxikin entenditzeko moue

aitzen jarriko bagineke, gauze asko entediuko genituzkela.

Zaitu beherreko hitzek

Eztakit oingo umiek ta Azkottin nola hitzeingo deben, baino espero det *bebarrue*, *antxintxi-ke*, *merixue* ta *kitterrie* esaten segiukobela, gure amak-eta sano esaten segitzeben bezela.

Ekárriko al dik baló hori hona; amorraerai-tten ai aiz; txiki-txiki eingo haut; ezizek esan; apáltzea gitxin. Ta Azpeitiyen: *ikixikoñebe, etzakiñet neska.* Espero det hika eiten segiukobela lasai elkarrekin.

Artikulo honekin agurtze naiz, aspaldiyeen tarte gutxi hartzet idazteko ta bestematek nik baino errexo ta gauze geyo esateko eukikoitu seguruna.

Ondo izen.*



Baserritarren Eguna 2014

uztailak

25

ostirala



09:00etan HERRIKO MUSIKA BANDAREN eta IZARRAITZ TXISTULARI Taldearen eskutik, GOIZ ERESIA.

10:30ean Ilunpe Elkartearen XXX. Pilota Txapelketa, CESAR VALVERDE SARIA, Frontoi Txikian.
Kategoriak: Aurrebajaminak, benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak eta afizionatuak.

11:00etan GANADU ERAKUSKETA eta XVI. GAZTA LEHIAKETA Idiazabal jatorri deituraren barne dagoen artzai gaztak parte hartu ahal izango du.

12:00etan XLII. SAGARDO LEHIAKETA PLAZA NAGUSIAN

Txekor errea eta hegaluzea parrilan dastatzeko aukera izango da.

Aldi berean, bertsolariek, trikitilariek eta txarangak alaituko gaituzte.


Eta umeentzako parkea ere izango da.

18:30ean ERREKORTADOREAK Zezen Plazan.

Zatoz, Baserritarren Eguna giro onean ospatzera!

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Euskaraz lagunartean

Maiatzean hasi ziren hogeit hamar herritar mintzapraktika saioetan. Elkar-ekin eta XJ Auzolanean taldeek jarri zuten abian egitasmoa, eta udako oporren ostean hasiko dira berriz saioak.  Julene Frantzesena

Aste batzuk badira "euskara praktikatzea eta ondo pasatzea" helburu duten mintzapraktika saioak martxan direla. Elkar-ekin eta XJ Auzolanean taldeek antolatutako egitasmoa da Mintzalagun, eta dagoeneko 20 bat herritar ari dira saioetan parte hartzen.


Euskaraz hitz egiteko duten gaitasunaren arabera, hiru taldetan banatu dituzte hitz egiten ikasi nahi duten herritarrak, eta dinamizatzaile lanetan, saioak bideratzen, bospasei lagun aritzen dira. Astean behin elkartzen da talde bakoitza, eta pare bat

orduz jarduten dute euskaraz hitz egiten, lagunartean. Udaurreko saioak bukatu dituzte dagoeneko, baina uda ostean ekingo diote berriz ere egitasmoari.

Irailetik aurrera, saioak Gipuzkoako Foru Aldundiko dinamizatzaile batek gidatzea espero dute ekimenaren sustatzaileek, eta uda ostean zabalduko dute euskaraz ikasi nahi dutenek izena emateko epea.

Ekimena Sanjuandegin abiatu bazuten ere, herritar ororentzat dira saioak.*



Maiatzean aurkeztu zuten egitasmoa, Sanjuandegiko Baigeran.  XJ Auzolanean



Josu Zabala MU-ko errektorea.



“Oso oparoak izan dira azken zortzi urteak MU-rentzat”

“Errektore berria eta ni elkarrekin arituko gara azkenengo hilabeteetan”

JOSU ZABALA
Mondragon Unibertsitateko errektorea

“Orkestraren misioa izan da zubi lana egitea ikerketaren eta errealitateko arazoaren artean”

“Ikerketan emaitza onak ari gara izaten”

MARI JOSE ARANGUREN
Orkestra-ko zuzendaria

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

EREGI

EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

goiko kalea 5, 3A tel.: 943 08 06 88
azpeitia eregi@eregi.net eregi.net



Kinto kontuak

Aldizkari honetan idazten dutenen artean zaharrenetakoa ni neu izango naiz. Txetxu, lasai, aldizkari gazte eta frexkoa duk, hemen idatzita beti gazte. 40ko muga gaindituta, batzuk diote nolabaiteko krisia sortzen dela, urteen zama onartu ezina. Krisi horrek jo ez nauelakoan nago baina, egiari zor, aspaldian gazte, zahar eta horrelako kontuak bolo-bolo darabilzkit. Kontua da, dakitenek diotenez, inoiz kolpe zorrik jo ez duen horrek jubilatzea erabaki duela eta aginte osoa, alegia, zorrien patentea, bere semearen esku, edo buru, utzi duela. Indarrean datorren belaunaldi berri

bati lekukoa emateko garaia dela esan du gizonak. Belaunaldi berria? Indarrean datorrena? Hau duk hau poza. Agintari berria, legez bekatu ez duena, irakurri ondo, nire kintakoa da. Beraz, aldizkari honetako hizki-jostun zaharrenetakoa da, gizartean indarrez gainerka dagoen gizaldi berriaren adierazle, ikur edo irudia, zeuok aukeratu.

Indarrean, sasoko dagoen belaunaldi hau izan zen soldaduskari ihes egiteko aukera izan zuen aurrenekoa. Batzuk aurrez aurre ezezkua emanez –aurreneko objetoreei mi-resmen osoa–; beste batzuk, neu tarteko, bat



txetxu urbieta

bateko buru gaixotasun bitxiak asmatuz –eskerrak konplize izan genituen medikuei ere–.

Erabaki orok albo-kalteak ditu. Nireak bakar bat izan zuen: benetako kinto bazkari ez. Pentsatzen hasita, bere garaian nire betebeharra gizontasunez bete izan banu, agian, gaur jaun eta jabe denarekin kinta bazkariak egingo nituzke. Eta emaztea nire lankidea duenez, zergatik ez, uda elkarrekin Mallorkan pasatu. Ba... ez, nik uda, oraingoz, Zarautzen; eta nire jaiko jauna, zerbitzari izango nauen errege bakarra, Nafarroako erregea eta Atarrabiako jaikoa.*

IKUSTEKOA!



▲ TXILEKO ZALE UGARI, KIROLDEGIKO TABERNAN.

Ekainaren 18an jokatu zuten Brasilgo Munduko Kopako taldekako faseko norgehiagoka Txileko eta Espainiako selekzioek, eta hainbat txiletar elkartu zen kiroldegiko tabernan, partidaz gozatzeko. Eta, bai gozatu ere, Espainiari 2 eta 0 irabazita, hurrengo fasera igaro baitzen Txile. Festa giroan ospatu zuten Azpeitiko txiletarrek garaipena. 🍷 J. Frantzesena 🍷 G. Eizagirre *

███EKAINEN ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...████████████████████



████████████████████alex silva████████████████████



Erabakitzeari bai

GURE ESKU. Independentziaren aldekoa, ETak bultzatua, Kataluniari jarraikitakoa... Denetarik entzun da Gure Esku Dagok antolatutako giza kateaz. Baina sakonean erabakitze eskubide demokratikoaz hitz egitea eskatzen zuen ekimenak. Herritarren iritzia ezagutu eta horren arabera ekintzak antolatzea eta erabakiak hartzea du helburu ekimenak. Jendearen iritzia ezagutzeko beldur al dira?



XXI. mendeko erromesak

KAZETARITZA. Poztekoa da alemaniar kazetariak Azpeitira egindako bisita. Ezin da ukatu komunikabideek duten eragina, eta 'erromes' hauek bozgorailu lana egingo dute euren jaioterrian. Ea turismo datuak hobetzea lortzen dugun horrelakoekin, gurean badugu-eta zer ikusi.



Kioskoduna eta oinezkoa

PLAZA. Hileko gaia izan dela ezin da ukatu. Orriak idatzi dira herri galdeketa inguruan, solasaldiak irrati eta telebistetan, eztabaidak... Eta, noski, baita herriko kaleetan ere. Ziur ez dela denen gustukoa, baina ni ezin naiz kexatu, gustuko dut-eta emaitza. Plazak hartuko du

bere garrantzia, eta lortuko da elkarbizitzarako formula egokia, beste herrietan lortu duten moduan. Beti eduki izan ohi da aldaketen aurrean beldurra, ordea. Bost urte barru konturatuko gara Azpeitiko Alde Zaharrak irabazi duen bizi-kalitateaz.*

INKESTA

inguruko zein hondartza duzu gustukoen?

Eneritz Albizu

ANE OTAEGI

24 urte



"Zumaiako herrikoa gustatzen zait. Paseorako ere toki ederra da. Bere xarma du, ez baita ez oso handia eta ez oso txikia. Goizez joatea atsegin dut, edo iluntzean; bestela, gainerako orduetan jende asko egoten da eta".

NAIA GRANADO

13 urte



"Zarauzkoa gustatzen zait. Olatu onak egoten direlako joaten naiz hara, lagunekin autobusean. Aurten joan naiz pare bat aldiz, baina normalean igerilekura joaten gara".

ENEKO LARRAÑAGA

11 urte



"Zumaiara, Itzurunera, joaten naiz gehienetan. Olatuak egoten dira eta asko gustatzen zait. Gurasoekin autoan joan ohi naiz, eta Zumaiara ez bada, Getariara joaten gara".

MIKEL ORENA

65 urte



"Zumaiara joaten naiz txikitatik. Hango bi hondartzak gustatzen zaizkit paseoan eta ibiltzeko. Gainera, lagunak ditut Zumaiara. Zarautzera Azpeitiko aberatsak joaten dira".

Uztaileko aferak

Urteko gaurik motzeneko akelarrearen ostean dantzari gabilta aker eta sorginak, ikasturteari bukaera ematen ikasleak, oporretarako egunak zenbatzen enplegudunak. Udak zer ekarriko, gozatu asmoz, zahar eta gazteak. Udazkenera arte eta urtean zehar bidelagun nahi genuke eguzkia eta umore ona. Ospakizun eta festa garaia baita uztaile herrian, geure egin ohi ditugu kaleak herritarrok.

Gaztetxearen bederatzigarren urteurrena ospatuko dugu uztailearen 19an. Bederatzi urte autogestioa oinarri, herria egiten, han eta hemen eragiten. Antolatuz borrokatzen, borrokatuz eraikitzen. Aurten ere, baltsak prestatu eta ibaia abordatuko dugu, sangriarekin topa eginez jolastu eta solasteko aitzakiarik ez da faltako, eta berrerabilitako materialarekin egindako batukadaren erritmoa lagun izango dugu. Zorionak Gaztetxeari, lortzeko borrokan aritu zirenei, urte guzti hauetan lanean jardundakooi, eta jarraituko duzuenoi. Zorionak beste eredu bat posi-



amaia agirretxe

ble dela mahairatzeagatik, eta eskerrik asko!

Santio festak, preso eta errefuxiatuekiko elkartasun eguna, Ume Eguna eta San Inazio festa egun ofizialak. Herritarrok gara jaietako protagonistak, edo hala behar genuke izan. Haujijijai festa batzordeak eta Marea Arroxoak urteak daramatza festak herritik eta herritarrontzat behar dutela aldarrikatzen. Festa herrikoiak, anitzak, ekologikoak, parekideak eta askeak. Herritar denak olatura batu asmo dituzte Marea Arroxoak, eta parte hartzea zein herritarren protagonismoa dituzte ardatz nagusiak. Baina olatuaren inertziak, festak herritarrentzat izateak, herritarren bultzada behar du ezinbestean, herritik ateratzea. Izaera herrikoia ez baitio ekimen bati jendetza izateak ematen, antolaketa ereduak baizik.

Orain arte bezala, aurrerantzean ere, batean zein bestean antolatzaera gonbidatu nahi zaituztet, egunero egiten dugun herri honen subjektu aktibo izatera. Eraikiz, eraldatuz, gozatzen!*

galdetzen hasita, egingo al da beste herri galdetarik udal agintaldi hau bukatu aurretik? Uztarria

Nartxixaren kredoa

Berrogeita hamabiren bat urte izango dira, Nartxixak Kredoa buruz erakutsi zidala. Azpeitiko parrokiaren ematen zigun dotrina, elizako lehen aulkiarra jarrita ginela, erretaula barroko erreztatuaren aurrean, San Sebastian geziz josiaren azpian.

Nartxixari buruz ez dakit beste ezer, tamalez, baina Kredoa aipamenak haren oroitzapena dakarkit, eta haren oroitzapenak omenalditxo apal bat berari eskaintzera narama. Baita Kredoi buruzko gogoetatxo bat egitera ere.

Jo dezagun Abitaingo iturri inguruan Nartxixarekin topo egiten dudala eta tupustean botatzen didala: "Zer egin duzu nik erakutsitako Kredoarekin? Uste nuen txintxoago eutsiko zeniola umetako eta betiko dotrina santuari...". Zer erantzun? "Bai, Nartxixa –esan nahiko nioke, ahal dudan gozoen–, arrazoi duzu. Baina zer egin nezakeen? Bizia bezalaxe, bizitzako bideak ere ez ditugu erabat aukeratu. Ezta sinesmena ere, ezta Kredoa ere".




joxe arregi

Kredoa ez dugula aukeratu?, galdetzen didazu kopeta zertxobait zimurtuz. Ba ez, Nartxixa, ezta Kredoa ere. Zuk erakutsitako Kredoa muinetaraino sartu zitzaidan, San Sebastiani geziak bezala. Eta hor daukat oraindik, naizenaren hezur eta mami. Baina ez derrigor Kredoarekin batera erakusten zenez zigun sineskizunak.

Sineskizunak aldatu egiten dira, Nartxixa, munduarekin batera. Eta ikusi zenbat aldatu den mundua berrogeita hamar urte hauetan. Orduan, maristatik parrokiara bidean, ez genuen autorik ikusten; idi-pareak uztarrian gurdiari erantsita, eta astoak sokatik, bastaz txalmatuta eta otarrak gainean. Bost mila urte lehenago bezala.

Nola nahi duzu orduko sineskizun berak izatea, mundua hain bestelakoa izanda? Baina gauza bat esango dizut, lasaitzeko: zure Kredoa eta nirea –sineskizunekin edo sineskizunik gabe, berdin dio– Kredoa bera dira: Bizia. Kredoa.*



Inposizioa

Eta bat-batean, dena da inposizio. Zer-bait egitera behartzen gaitu baten batek, eta sentitzen dugu ez lukeela horrela behar. Eta orduan hitz bat modan jartzen da, eta hasten gara erabiltzen. Eta esan nahi duguna hain ederki adierazten du, erabiltzen ditugun esaldi askotan sartzen hasi gara. Eta bat-batean, dena bihurtu da, bihurtu dugu, inposizio. Dena. Dena, eta ez dena. Eta hauek denak inposizioak ote dira? Eta zer ote da inposizioa? Inposizioa ote da Errege Mago batek udaltxeko balkoitik "aupa Real" esatea? Inposizioa ote da inor ez dagoela, gaueko hamarre-

tan, udaltzainek Erdiklean goitik behera bizikletan pasatzen ez uztea? Inposizioa ote da zaborrak atez ate biltzea? Inposizioa ote da ez birziklatzeko eskubidea aldarrikatzea? Inposizioa ote da San Joan sua ikustera plazara joaten direnei berrogeita bost minutuko 'espektakulua' ikusaraztea, espektakulua suak berak izan behar lukeenean? Inposizioa ote da plaza oinezkotzea? Inposizioa ote da plaza (ez) oinezkotzeko erreferenduma egitea? Inposizioa ote da 'Euskal presoak Euskal



■■■■■■■■■■ñaut frantzesena■■■■■■■■■■

Herrira' kartela berdura plazan jartzea? Inposizioa ote da zergak igotzea? Inposizioa ote da umeak D ereduan esko-laratu beharra? Inposizioa ote da herriko elkarteetan bazkideak hartzeko orduan generoa kontuan hartu beharra? Inposizioa ote da nesken kirolari mutilenari baino diru eta baliabide gutxiago ematea? Inposizioak ote dira, konparazio batera, Udalak hartzen dituen erabaki guztiak? Dena ote da inposizioa, ados ez gaudenean?*

Bat-bateko arrakasta berantiarra

Oraingo honetan ez dakarkit zehazki pelikula bat. Sixto Rodriguezen bizitza pelikuletan bakarrik gertatzen direla diruditen istorio horietako bat da. *Searching for Sugar Man* musikari horren bizitza buruzko dokumentala da. Sixto Rodriguez (Detroit, AEB, 1942) Mexikoko etorkin bikote baten semea da. Hiri industrial, ilun batean jaioa, pobrezian. Bere musikan islatzen da hori, politikari eta bizi den hiriar buruzko erreferentziaz betetako letretan. Hainbat taberna eta lokaletan abesten zituen bere kantak, baina hain zen pertsonaia misteriozua, aldi berean ez zuela ia inork ezagutzen. 1960ko hamarkada amaitzean, musika industriako bi ekoizlelek ikusi zuten taberna batean abesten ari zela, eta disko bat grabatzea proposatu zioten.

■■■■■■■■■■KRITIKA■■■■■■■■■■

'Searching for Sugar Man' filma



Zuzendaritza eta gidioia. Malik Bendjelloul.
Iraupena. 86 minutu.
Urtea. 2012.
Musika. Sixto Rodriguez.

Haien laguntzaz Rodriguezek bi disko kaleratu zituen, *Cold Fact* (1970) eta *Coming From Reality* (1971), baina AEBtan bere musika ez zuen inongo arrakastarik izan. Hirugarren diskorako lanean ari zela, Sussex diskoetxeak kalera bota zuen; ondorioz, musika utzi eta bizitza arruntera itzuli zen. Urte batzuen buruan, Hegoafrikan Rodriguezen musika oso ezaguna bihurtu zen. Errepresioan eta *apartheid*-ean isolatuta bizi zen herrialdeak haren abes-tietan, politikaz bustitako letretan, bertakoek zentsuraren ondorioz esan ezin zituzten ideiak entzuten zituzten. Zentsuraz inguratutako komunitateak bat-batean bere ideiak adierazten zituen nor-bait zuen, eta *apartheid*-aren aurkako mugimenduaren zati bihurtu zen Rodriguezen musika. Hegoa-

fririk bizi zuen isolamenduaren eta Rodriguezen izaera misterioz-tsuaren ondorioz, musikariak bere buruaz beste egin zueneko zurrumurruak tarteko, ia ezinezkoa zen haren jarraitzaileentzat Detroitkoari buruz ezer jakitea. 1990eko hamarkadan bi jarraitzaile sutsu ikertzen hasi ziren arte. Hainbat sari –Oscar, Bafta, Sundance...– jaso dituen dokumentalean, hegoafrikar haiek beraientzat ia mitoa zen abeslariari buruz gehiago jakiteko egin zuten lan guztia, eta horrek bai beraientzat eta bai musikariarentzat izan zuen ondorioa ikusiko dugu. Benetan istorio hunkigarria da Sixto Rodriguezena: umiltasunez eta ezjakintasunean bizitako bizitza, munduaren bestaldean Elvis bera baino ezagunagoa zenean.*



■■■■■■■■■■ane soraluze■■■■■■■■■■

IRENE ALTUNA
 LORADENDA
 Loidola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
 www.ialunadenda.com

AZKOITIA
 ERLOJU KONPONKETAK
 Arana, 5
 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

AIZPURU AUTOAK
 Landeta auzoa - Telf. 943 81 23 59
 Faxe: 943 81 22 81 20730 Azpeitia
 aizpuru@aizpuru.net

OIER ETXEBERRIA

artista

“Eredu industrial osoa da zalanztan jarri behar dena”

Arte Ederrak ikastetik, ingurumenari begira diharduen Cristina Enea Fundazioan lan egitera iritsi da: natura eta artea, eskutik. 🖋️👁️ Aintzane Larrañaga

Ingurumenari estu lotuta bizi da Oier Etxeberria *Ministro* artista. Donostiako Cristina Enea Fundazioko langilea da azpeitiarra, Dinamizazio eta Kultur Ekintza arduraduna, zehazki, eta bertan “gogoz eta pasioz” dihardu lanean, Gipuzkoako hiriburuko eta inguruko udalerrietako biztanleen naturarekiko kontzientzia aldatzeko pausoak marrazten.

Nolatan hasi zinen Arte Ederrak ikasten?

Ez zen txikitatik nekarren pasio bati jarraiki egindako hautua izan. Institutua amaitu, hautaprobak

egin eta ikasketak aukeratzeko garaia iritsi zenean, Azpeititik irteera besterik ez nuen buruan. Donostia gertuegi zegoela iruditzen zitzaidan, eta Bilbora begira hasi nintzen, ea zer-nolako eskaintza zegoen. Horrela, Arte Ederrak ikasteko aukera zegoela ohartu, eta huraxe hautatzea erabaki nuen. Egia esan, ez nekien han zer aurkituko nuen; garrantzitsuenak etxetik atera eta hiri handira joatea zen.

Zertan inspiratzen zara lan berri bat egiterako orduan?

Azkenaldian, soinuaren edo mu-

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1974ko uztailaren 2a.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Donostia. ||| **Lanbidea.** Cristina Enea Fundazioko Dinamizazio eta Kultur Ekintza arduraduna.

sikaren konplexutasuna ardatz hartuta ari naiz lanean, jendetza edo masaren arteko harremanak, zehazki. Gasteizko Montehermoson egindako *La Lana* erakusketan hasi nintzen gaia ukitzen; Arabako hiriburua ereduztat hartuta, manifestazioetako iskanbiletatik hasi eta kirol jardunaldietara. Huraxe izan zen horren inguruan

egin nuen lehen lana, abiapuntua. Haren ondotik, bi gauza etorri dira: batetik, beste lan berri batzuei eman die paso, eta bestetik, Xabier Erkizia musikariarekin *Hirugarren belarria* izeneko programa bat egiteko aukera eman zidan, soinua eta mundu sakratuaren arteko harremana uztartzen dituen.

Instituzioek beka eskaini ohi dituzte artistentzat. Zenbateraino laguntzen dute?

Euskal Herrian, tradizioz, oso beka sistema indartsua izan



dugu, estatu espainiarrekoarekin alderatuta. Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen diru-laguntzak izaten dira baldintza onenak dituztenak, osatuenak. Eredu ezberdinak daude: batzuk lana argitaratzeko aukera ematen dute; beste batzuk, aldiz, lana sustatzeko. Beka horiek jasotzeak proiektu batzuk aurrera ateratzeko parada ematen dute, baina ezin da hortik bizi. Gainera, ezin zaitezke urtero bekak eskatzen ibili. Egon-

go da horrela egiten duenik, baina...

Zer moduz ikusten duzu panorama artistikoa geurean?

Jende asko dago gauza ederrak egiteko prest, baina azken hamabost urteetan, beherakada nabaritu dut, instituzioen aldetik, batez ere. Galduta daudela iruditzen zait, noraezean, eta horrek, gainera, ezinegona sortzen du gizartean. Artista onak daude kalean; arazoa instituzioetan dago.

Arte Ederren mundutik ingurumenera egin duzu jauzi. Nolatan hasi zinen Cristina Enea Fundazioan lanean?

Arte Ederrak ikasteak badu gauza on bat: edozein lekutan lan egiteko balio du. Nahiko karrera askea da, eta zure desiotik lan egitearekin zerikusi gehiago dauka. Zerbitzu publiko bat eskaini nahi duen edozein instituziok har dezake Arte Ederrak ikasi duen pertsona bat bere baitan, gogotik eta pasiotik lan egiteko.

Nola definituko zenuek Cristina Enea Fundazioa?

Cristina Enea, batez ere, diru publikoaz finantzatzen den fundazioa da, zerbitzu publiko bat eskaintzeko beharra duena. Naturaren eta ingurumenaren gainean pentsamolde berri bat sortaraztea eta gauzak zalantzan jartzea da, besteak beste, zerbitzu horren norabidea.

Zein da zure lana fundazioan?

Programak sortzen ditut, oso ezberdinak elkarren artean. Urtaroekin lotuta egoten dira sarri: udaberrian, Urumea ibaiari zuzendutako proiektu bat izaten dugu martxan; udazkenean, arkitekturen zuzendutakoa; urte osoan zehar, bertako hazien inguruko bat; beste bat moda jasangarriari lotutakoa. Gaitegi oso zabala izaten dugu eskuartean.

'Haziera' da zuen proiektu arrakastatsuenetako bat. Zertan datza?

Nekazal munduaren gainbehera-

rekin batera, bertako haziak ia desagertu egin dira, eta kezka horretatik abiatuta sortu dugu *Haziera* programa. Mekanika oso simplea da: espazio bat daukagu fundazioan, eta bertako 30 hazi bildu genituen, industrialki tratatu gabeak. Artxibo bat daukagu haziakin osatutako fitxa ezberdinekin, eta edonor etorri daitezke hazien bila. Etxean landatu eta, fruitua ateratzen denean, hazi berria artxibora ekarri behar da. Horretaz gain, jendeak hazi pila bat ekarri ditu, eta 98 barietate desberdin ditugu orain. Oso ondo funtzionatzen duen programa da, eta hitzaldi eta mintegien dinamikak hausten du, jendeari parte hartzeko aukera ematen baitio.

Fundazioak sorreran zituen aurreikuspenak bete al dira? Jendearen kontzientzia al daketa nabari al duzue?

Zaila da esatea benetan egoera aldatu ote den edo ez. Egia da gauza batzuetan jendea askoz kontzientziatuagoa dagoela ekologia eta ingurumen gaietan, baina hor amarru bat dagoela iruditzen zait. Izan ere, askotan karga gehiegi jartzen da herritarrengan, baina estruktura indartsuenek, industria eta garraioa, kasu, ez dute gaia ukitu ere egiten. Beraz, aldaketen eragina oso urria da. Azken finean, zalantzan jarri behar dena eredu industrial osoa da, eta horretarako bidea oso luzea da oraindik.

Zein izango da fundazioaren hurrengo proiektua?

Ekainaren 28az geroztik erakusketa proiektu bat dugu martxan, komunaren inguruko: komunitatean bizitzera joan direnen esperientziekin osatutako erakusketa da, eta horri lotuta, ekintza ezberdinak, zine zikloak...

Eta arlo pertsonalean, etorkizunerako planik?

Azken boladan Loiolako artxibora joaten naiz sarri, Aita Laburu ize-neko jesuita baten lanen inguruko informazioa biltzeko. Horrekin lotuta ea zerbait egin ahal dudan laster.*

“Etxetik atera eta hiri handira joatea zen garrantzitsuena”

“Artista onak daude kalean; instituzioetan dago arazoa”

Ekinez egina

Abenduaz geroztik hamar bat ekintzaile astero elkartzen dira, ekintzailetza sustatzeko eta elkarri laguntzeko asmoarekin. 📌📍 Julene Frantzesena

Modan dagoen hitza da 'ekintzaile'. Modan dago, eta horrelakoetan gertatu ohi den gisan, asko entzuten da. Ekintzaileak direla diote Urolab taldean batu diren Nerea Amenabarrek (Azpeitia, 1987), Joxe Mari Aizpuruak (Azpeitia, 1967) eta Amaia Zumeagak (Azpeitia, 1994). Haien arabera, pertsona ekintzailea da konformatzen ez dena, aktiboa, eta gauzak hobetu zein aldatu nahi dituenena. Dena den, kontzeptu "abstraktoa" dela onartu, eta hitzaren

esanahia "normalizatu" beharra dagoela azpimarratu dute.

Urolabekoak abenduan elkartu ziren aurrenekoz, eta harrezkero ostiralero egiten dute juntadizoa hamar bat lagunek. "Ekintzailetza sustatzeko eta ekintzaileei laguntzeko" sortutako elkarte delako dio Amenabarrek: "Horrelako talde bat sortzeko beharra ikusten genuen, eskualdearen egoera ekonomikoa ez delako ona". Taldea "sare" baten modukoa delakoan dago Zumeaga, eta iritzi beretsu-

koa da Aizpuruaren ere: "Aholkularitza, kontaktuak, esperientzia... Ekintzaile hasi berriei laguntzeko proposamena da. Ekintzaile batek proiekturen bat baldin badu eskuartean, Urolabera jo behar du aurrena, eta gure laguntza, zerbitzua eta kolaborazioa jasoko ditu".

Talde "irekia"

Urolab elkarte "irekia" dela, eta "orotariko proiektuak landu nahi dituen herritar guztientzat zabalik" dagoela azaldu dute. "Batez ere,



Urolabeko kide batzuk, Enparan kalean. |||Urolab



||| “Asko betetzen nau besteengan eragin positiboa izan dezakedala ikusteak”

NEREA AMENABAR
Urolabeko kidea

gazteak gara taldean, baina helduak ere animatu nahi ditugu parte hartzera, ziur gaude eta ekarpen ugari izango dutela”,

Atea “edonork” jo dezakela dio Zumeagak: “Gu ere horrela hasi ginen. Jendeak ez daki hor gaudela edo zer egiten dugun, eta lotsak eta beldurrak hor daude... Ekintzaile entzun eta ‘hori ez da nirea’ edo ‘hori zerbait handia da’ pentsatzen dugu”.

Aizpuruaren arabera, herriko edozein eragile da ekintzailea bere arloan, jarrera aktiboa duelako. Zumeagaren aburuz, ordea, herriko taldeak “banaka dabilta”, eta indarrak batuta “askoz ere gauza gehiago egin ditzakete”. “Urolabek paper hori hartu behar du. Eragile nahiz taldeen arteko harremanak sustatu behar ditu. Helburuak bete behar dira, bai, baina indarrak batuta, koordinatuta”, dio. “Normalean, zure modukoekin elkartzen zara, baina hoge informatikari proiektu berdinen bueltan egotea baino interesgarriagoa da baserriar bat, informatikari bat edo beste edozer ikasi duen bat elkartzea zerbait egiteko. Aberasgarriagoa da”, Aizpuruaren ustez.

Urolabek “poza” eman diela aipatu dute hiruak. “Unibertsitatean ekintzaile talde batean aritu nintzen. Asko betetzen nau besteengan positiboki eragin dezakedala ikusteak. Ikasketak bukatu nituenean, ordea, talde hura utzi behar izan nuen. Lanean hasi nintzenetik falta sumatzen nuen, baina inguruan ez zegoen halako talderik. Orain, poz handia daukat, Azpeitian sortu delako”, azaldu du Amenabarrek.

Zumeaga ekintzailetzari lotutako ikasketak

egiten ari da, eta Urolab sortu arte “beti kanpora” jo behar izaten zuela dio: “Beti hirietera joan behar izaten nuen ekintzailezarekin zer ikusia zuten gauzak egitera. Azpeitian taldea sortzera zihoazela jakin nuenean izugarritzko poza hartu nuen. Taldea sortzeak Azpeitiarekiko nuen ikuspuntua aldatu dit. Gainera, mugimendua dago herrian, eta ezagutzen ez nuen aurpegia erakutsi dit. Pozik nago, proiektuak Azpeitian sortu ahal izango ditudalako. Lehen ezinezkoa izango zela pentsatzen nuen, Azpeitian ezingo nuela ezer egin, baina orain ikusten dut egin ditzakedala gauzak hemen, eta ez hirietera soilik”.

Aizpuruak dio “asko ikasi” duela gazteengandik: “Jende berria ezagutu dut taldean, eta hori ekarpen handia da. Duela bost urte ingurura arte egin nituen gauza guztiak neure kasa eta bakarrik egin nituen, eta azken urtetan taldean aritu naiz. Pertsona bezala asko aberastu nau horrek. Konturatzen zara taldean egindako gauzak aberatsagoak direla”.

Uda ostean, ‘Faktoria’

Herriko taldeen arteko harremanak eta elkarlana sustatzeko *Faktoria* ekintzaileen gunea prestatzen ari dira Urolabeko kideak. Irailaren 19an, 20an eta 21ean egingo den Azoka Herriatik ekimenaren baitan egingo dute ekimena, “persona desberdinak ezagutzeko, eta eragileen elkarlana bultzatzeko”. “Azoka Herrikiten eragile ugari hartzen du parte, eta aurtan *Faktoria* izango da eragile horiek beraien proiektuak aurkeztu ahal izango dituz-



||| “Herriko edozein talde edo eragile da ekintzailea bere arloan, jarrera aktiboa duelako”

JOXE MARI AIZPURUA
Urolabeko kidea



||| “Lidergotza ez da negatiboa, baizik eta batek duen gaitasuna, besteak animatzeko”

AMAIA ZUMEAGA
Urolabeko kidea

ten tokia. Taldeek tartea izango dute proiektuak aurkezteko eta egiten dutena azaltzeko. Jendearengana iristeko parada izan daiteke”, diote. Parte-hartzaileei “erraztasunak” eman nahi zaizkiela, eta azoka bukatzean “taldeen artean proiektuak-eta sortzea” nahi dutela esan dute.

Faktoria behar bezala egiteko, dirua biltzen ari dira Urolabeko kideak: “Karena lehen *crowdfunding* euskal plataformaren bidez. 1.500 euro bildu nahi dituzte, proiektua finantzatzeko eta antolatzeko.”

Taldea eta lidergoa

Ekintzaile hitzari estu lotuta dagoen kontzeptua da lidergoarena, eta Zumeagak dioenez, “negatibotzat” dugun adiera da. “Hori ez da horrela, ordea. Lidergoa da batek duen gaitasuna besteak animatzeko eta gidatzeko. Nik talde bat zuzentzen badut ez dut zertan agindu. Kideak motibatu eta gidatu, eta taldeak aurrera egin dezan pausoak ematen lagundu behar dut. Gainera, taldekide bakoitzak bere rola du, eta lidergoa denok dugu, baina norbere esparruan”. Amenabarrek uste du lidergoa behar dela, baina “gidari” izan behar duela paper hori hartzen duenak, eta Aizpuruaren ustez “natural” sortu behar du gidaritza horrek.

Kontuak kontu, martxan da Urolab taldea. Proiektuak badituzte eskuartean. Hasi dira lanean, baina Azpeitian lanpostuak sortzeko proiektuak eta ideiak “falta” direla uste dute taldeko kideek. Ekinez egiten dela dio esaearak. Nola bestela?*



▲ OTZAKA.

Sute batek kalte larriak eragin zituen Izarraitz auzoko baserri honetan, 2003ko azaroaren 21ean. Gaur egun, ez dago baserririk lehen Otzaka zegoen tokian.

Falta direnak

Juan Joxe Agirreren 'Azpeitiko baserriak argazkitan' liburua argitaratu zenetik hona hainbat baserri desagertu dira. 📌 Mailo Oiarzabal 📷 Juan Joxe Agirre



▲▼ IGARTZAK

Aurten bertan, otsailaren 5eko goizaldean, erabat kiskali zituen suak Urrestillako (liburua argitaratu zenean, Elosiaga) Igartza baserriko bi etxebizitzak. Bietan bizi zen jendea, baina zorionez ez zen inor zauritu. Teilatupe bereko bi etxebizitzak, ordea, erabat hondatuta geratu ziren.

Santio egunean hamazazpi urte beteko dira. 1997an, Base-rritarren Egunaren barruan, aurkeztu zuen Udalak Juan Joxe Agirrereren *Azpeitiko baserriak* liburu mardula. 456 orrialdetan, 377 baserriren irudiak eta hainbat datu jasota daude, sei urteko bilduma lanaren emaitza. Liburua argitaratzerako, bertan jasotako zenbait baserri desagertuta zeuden jada. Orduetik hona ere ez du etenik izan baserrien desagertzeak edota eraldaketak: Agirre beraren esanetan, 30etik gora dira falta direnak. Horietako batzuk ekarri ditugu hona.





▲ AUZARAZA-ETXEBELTZ BERRI.

Loiolako Inazio hiribidearen paisaia majo aldatu du azken urteetan. Herria alde hartara zabaldu da nabarmen, eta bide ertzean edota bidetik gertu zeuden hainbat eraikin desagertu egin dira, etxebizitza bloke eta auzo berriei tokia egiteko. Horren adibide dira Auzaraza eta Etxebeltz Berri baserriak. Bigarrena hutsik zegoen 'Azpeitiko baserriak' argitaratu zutenerako. Auzarazan, aldiz, bizi ziren, 1997an.



▲ ZABALETXE.

Izen bera hartu duen Landetako biribilgune berri handia baserri honen lurretan egin zuten.



▲▼ ERREKALDEAK.

Odria auzoari dagozkion bi baserriok bota egin zituzten, Corrugados Azpeitia lantegiaren egoitza berriak eraikitzeko.





▲ AROSTEGI.

Baserri honen desagerketa ere Landetako inguruek jasandako eraldaketaren beste ondorio bat izan zen. Oñatz bailarako lurretan kokatuta, industria erabilerarako izan behar zuten lurrei tokia egiteko bota zuten Arostegi.



▲ BADIOLEGI.

Alboko orrialdeko Errekalde baserriak bezala, Corrugados Azpeltia enpresaren egoitza berria izan behar zenaren azpiegiturak eraikitzeke bota zuten bi etxebizitza zituen Badiolegi baserria. Izarraitz bailararen lurretan, Azpeltitik Zestoara doan errepidearen alboan zegoen.



▲ANTXIETA TXIKIAK.

Baserriak bota eta haien tokian etxe berriak eraiki diren kasuak ekarri ditugu gehien bat bi orrialde hauetara. Urrestillakoak dira denak, gainera. Antxieta Txiki baserriak, liburuan Aratzerreka bailaran kokatuak, dira horren adibide. Kasu honetan, lehendik zuten utzita, bietan, baserriko jarduna. Beheko argazkikoa, gainera, Juan Joxe Agirrerren liburua plazaratzerako eraitsita zegoen.



▲GUARDI.

1997tik hona desagertu diren baserri-etxeetako azkena izan da. Etxe berria eraiki dute baserriaren tokian.



▲▼ ATXARANAK.

Elkarren ondoan eraikita, Eizagirre bailarako bi baserriok etxebizitza berriekin ordeztu dituzte.





▲ TXARABARREN.

'Azpeitiko baserriak' atera zenerako hutsik zegoen baserria eta bertakoak handik gertu eraiki zuten etxera bizitzera joanak ziren. Harrezkero, ordea, baserri zaharra bota eta haren lekuan beste etxebizitza bat eraiki dute.



SOLDAUSORO.

Izarraitz auzoan kokatutako baserri hau hutsik zegoen, baina zutik, liburu argitaratu zutenean. Gaur egun, ordea, eraitsita dago eta, orri alde bi hauekako besteetan ez bezala, ez dute etxe berriak eraiki Soldausororen fokian.*

Harreman intermitenteak

Ez zarete bikotea, baina ezin zarete lagun bezala definitu, zuen artean dagoenak osagarri erotiko nabarmena duela. Badirudi batek besteak baino gehiago nahi duela zuena formalizatu; eta besteak, aldiz, ihes egiteko joera azaltzen duela. Aldizkako eta zehaztugabeko bikote harreman batetaz ari gara, eta nola kudeatu dezakegu?

Katuaren eta saguaren jokoa

Katuaren eta saguaren lasterketa jokoaz nekatuta zaudete. Ezin duzue denbora luzez bata bestea gabe egon, baina elkarrekin iraun ere ez. Egoerari bukaera emateko, zuen harremana etetea erabaki duzue, ez behin, ezta bitan ere... gehiagotan. Lagunak zuen harreman horri buruz kezak entzuteaz kokoteraino daude eta jada ez dute gehiago jakin nahi. Soluzioa gero eta urrutiago dagoela ematen du. Mozten duzuen bakoitzean sorgin gurpil batean zaudetenaren irudipena duzue.

Soluzioa jartzeko akzioa bada ere, mozteak ez du ezer konpontzen; arazoa areagotu egiten du. Ez dakizue benetan mozten, bestea galtzeko beldur zaretelako. Eta, era berean, besteari minik ez ematen saiatzen zaretelako, kontrako efektua lortzen duzue. Estrategia oso *txapuzeroa* da, finean; tirita bat pixkanaka-pixkanaka kentzea bezain mingarria, alegia.

Horrez gain, arazoa gaintik kentzeko, sentitzen duzuen ukatzen diozue elkarri, bestea ez uxatzeko edota sentitzen duzuen ez onartzeko. Horrek ere ez du zailtasunari irtenbidea topatzen laguntzen.

Gertatu ohi da ere, bata izatea jarraitu duena harremanaren hasieran eta gero, besteak interes handia azaltzean, lehenengoa ikaratuta iheska hastea. Orduan, jarraitua zenak, jada ez du ezer ulertzen: "Ez al nintzen bere gustukoa, ala?", pentsatzen du.

Batek maitasun harremana nahi duela eta besteak topaketa erotiko askeak nahi dituela



|||||||||||||nerea sancholli|

|||Argi izan aukera okerrean ez dela betirako uztea, betirako gauden bezala gelditzea baizik

|||Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.com/sexu 688897920

dirudi. Irizpide asko egon daitezke, baina elkarrekin sei topaketa erotiko baino gehiago egon badira, behar bada, pentsa dezakegu ez garela soilik erotismoaz edo erakarpen fisikoz ari; sentimendu sakonagoak daudela pentsa genezake, bien aldetik.

Jarrera aldaketak

Hasteko, katuaren eta saguaren jokoan murgilduta zaudetenaren kontzientzia izan eta onartzea beharrezkoa da. Ihes egiten duenak, ihes egiteari utzi; eta jarraitzen duenak, bestearen atzetik ibiltzeari utzi behar dio. Ez da erraza, baina tratatuz ateratzeko ezinbestekoa da.

Horrez gain, pentsa dezakegu bi aukera ditugula: a) elkarrekin egon harreman polit batean; b) betirako uztea. Baina argi izan aukera okerrean ez dela betirako uztea, betirako gauden bezala gelditzea baizik. Bada, hama bi urtez harreman intermitente batean egon denik. Hortaz, muturreko kasuetan, gaizki bukatzea –haserretuta– agian ez da aukerarik txarrena, horrek harreman berri eta alai bat hasteko aukera ematen badigu.*





(B)

**Diru (B)eltza,
gizarte-zerbitzu
(B)eltzak**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.


 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



 **Gipuzkoa**
BERRIA

Herria dantzan

Sahatsa dantza taldearen emanaldiarekin hasiko da 2014ko Azpeitia Dantzan programazioa, uztailaren 5ean. Hurrengo bi asteburuetan ere emanaldiak izango dira  Julene Frantzesena

Uteroko legez, uztailarekin iritsiko da herrira Azpeitia Dantzan egitasmoa. Lehenengo emanaldia Juan Luis Lizabe zuzendari duen Sahatsa dantza taldeak eskainiko du uztailaren 5ean, zapatuan, Soreasu antzokian (22:00).

Sahatsakoena ez da egitasmoren baitako emanaldi bakarra izango, izan ere, uztailaren 13an, igandea, Jose Mari Orbegozok zuzendutako areto dantzen taldea izango da Soreasuko oholtzan, 20:00etatik aurrera.

Hurrengo asteburuan, hilaren 19an (zapatua), hain zuzen, Itsasi Dantza taldeak eskainiko du emanaldia. Soreasu antzokian izango da Ainara Bidalek eta Maite Maizek zuzendutako saioa, eta 20:00etan hasiko da.

Azpeitia dantzan egitasmoko azken emanaldia igande horre-

DATUAK

Zer. Azpeitia Dantzan.

Egunak. Uztailaren 5a, 13a, 19a eta 20a.

Tokiak. Soreasu antzokia eta Done Jakue kaleko parkearen ingurua.

Antolatzailea. Azpeitiko Udala.


tan, hilaren 20an, izango da. Kale ikuskizuna eskainiko dute Frantziako Rouge Eleak konpainiako Celia Asselin eta Ander Fernandez dantzariak. *Ronde-Bi ahizpa* izeneko emanaldia plazaratuko dute, dantza eta zirkoa uztartzen dituen ikuskizunean. Done Jakue kaleko parkearen inguruan izango da, 19:30ean hasita, Fanny Soriano eta Corine Cellaren gidaritzapean.*

AZPEITIA DANTZAN

4 emanaldi. Sahatsa Dantza taldeak, Jose Mari Orbegozoren areto dantzen taldeak, Itsasi Dantza taldeak eta Rouge Elea konpainiak eskainiko dituzte emanaldiak.

5 Hilaren ean izango da aurrena. Sahatsa taldearen emanaldiarekin hasiko da Azpeitia dantzan egitasmoa.*



Sahatsakoak iaz eskainitako emanaldi batean.  Eli Aizpuru

BESTERIK

1 Edurne Brouardekin solasaldia

Aho bizarrak gabe solasaldi zikloko bederatzigarren gonbidatua da Edurne Brouard. Lea-Artibaiko AEK-ko irakaslea da egun, eta iaz utzi zuen Korrikaren koordinatzaile kargua. Brouardi aurrez galderak bidaltzeko aukera ahobizarrikgabe@gmail.com helbidera idatzita.

Eguna. Uztailak 15 (asteartea). **Ordua.** 19:00

Tokia. Sanagustin kulturgunea. **Antolatzaileak.** Sanagustin kulturgunea, Uztarria Komunikazio Taldea, Urola Kostako Hitza eta Erlo Telebista.

2 Kutxabankez hitzaldia

Kutxabank: zer ari da gertatzen? izenburupean hitzaldia izango da. Ekai Centerreko kide bat izango da hizlaria.

Eguna. Uztailak 16 (astazkena). **Ordua.** 19:00

Tokia. Sanagustin kulturgunea. **Antolatzailea.** Azpeitian Bizi eta Lan.

3 Karting-a herrigunean

Urteetan karting probarik ez da egin herrigunean, baina aurtan berreskuratuko dute ohitura zaharra Azpeitiko kart zaleek.

Eguna. Uztailak 19 (zapatua). **Ordua.** 15:30 **Tokia.**

Damaso eta inguruko errepidean.*

 Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



Bazkide egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan aukera hauetako baten bitartez:

- **uztarriabazkidetza@gmail.com**
- Telefonoa: **943 15 03 58**
- Bulegoko helbidea, Perez Arregi 1, behea
- **www.uztarria.com** webgunean, kontaktu formularioaren bitartez



HITZ GEZIDUNAK



Egilea:
Luma

		Behar handikoa	▼	Izeba	▼	Klariona	▼	Bih, ale	▼	Katilu txikiak	
		Eragile, egin zale		Bilo		Kantaria		Gaixotua			
			▶		▼		▼		▼		▼
		Nobela	▶								
Gizon izena	▼	Umeen azioak	▶								
Izena		Bizkaieraz, larrua	▼								
	▶		▼		Sendatua	▶					
					Jainko egiptoarra						
Ekialdeko azoka	▶				50	▶	Bokala	▶	Röntgen	▶	
Deitura					Joan den gauean		Egile atzizkia		Tontor		
	▶					▼		▼		▼	
Asiako estatua	▶				Areago	▶			Nor pluralean	▶	
Zaren hori					Nori atzizkia				Gar		
	▶					▼			Musika nota	▶	
					Hosto	▶			Sufrea	▼	
					Kontsonantea	▼				Bokala	
Bareta-suna	▶					▼				▼	

* Aktore azpeitiarra

SUDOKUA

				9			4	3
3	1							
4		7			3		6	
					5		8	4
			8	3	7			
8	6		1					
	4		6			8		1
							7	2
9	3			1				

ANTONIO RAFANIELLO
HORTZ KLINIKA

Titaniozko inplanteak: 295 € tik hasita

- Aseguruekin lan egiten dugu
- Finantziario pertsonalizatua

www.antoniorafaniello.com
Enparan kalea, 8-1. Azpeitia 943 816736

|||UZTARRIA SUKALDEAN. HIL HONETAN...|||||||

BAKAILAO ETA BIEIRA ENTSALADA, SANAGUSTIN KULTURGUNEAN OSAGIAK

Bakailaoa
 Bakailao kokotxak
 bieirak
 Kukuluak eta letxuga morea
 Gari-zainzuriak
 Tipulina
 Pikillo piperrak
 Tomatea
 Oliba olioa, ospina, gatzza eta
 piper hautsa



NOLA EGIN

Bakailaoa oliotan egosiko dugu, su baxuan. Egositakoan, olio gorde egingo dugu ospin-olioa egiteko. Gari-zainzuriak apur bat egosiko ditugu uretan, gero plantxan ukitua emateko.

Ospin-olioa, berriz, bakailaoa egosteko erabilitako olio, tomateen mamia, pikillo piperrak, olio, ospina, gatzza eta piper hautsa nahasiz egingo dugu.

Plateraren alde batean ospin-olioarekin gozatutako bakailaoa jarriko dugu. Gainean, kukulu xeheetuak eta ketxuga morea erantsiko dizkiogu, eta olio zein gatz pitin bat gehituko diogu. Horren gainean, berriro, bakailaoa.

Plateraren bestaldean, kukulu hostoak jarriko ditugu, plantxan pasatutako kokotxeekin, gari-zainzuriarekin eta bieirekin lagunduta. Bukatzeko, olio apur bat erantsiko diogu platerari, disdira gehiago izan dezan. On egin!



|||LEHIAKETAN ERANTZUTTEKO EPEA. Uztailak 21 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia edo uztarrisukaldean@gmail.com ||| IRABAZLEARI SARIA. Sanagustin kulturgunean bi lagunentzat afaria edo bazkaria |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarría Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. |||BIDALI ZURE GUSTUKO ERREZETA, PLATERAREKIN AGERTZEN ZAREN ARGAZKI ETA GUZTI. EZ AHAZTU ZURE IZEN-ABIZENAK ETA TELEFONO ZENBAKIA JARTZEA!

|||SOLUZIOAK|||||||
 HITZ GEZIDUNAK

A	N	U	S	V	T	A	I	V	S	V	L	●
●	S	I	●	R	I	R	O	R	●	U	E	Z
A	K	●	E	A	R	A	●	K	A	R	A	●
A	L	A	B	A	Z	R	E	R	I	G	A	●
R	●	U	●	L	●	R	A	Z	A	B	●	●
X	A	N	T	I	●	T	I	●	●	●	●	●
K	A	K	E	R	E	K	E	K	U	M	E	●
I	R	I	R	E	B	E	L	E	●	●	●	●
K	A	K	A	L	E	Z	A	R	I	Z	A	●
●	G	●	K	●	I	●	P	●	●	●	●	●

SUDOKUA

6	5	4	2	1	7	8	3	9	6	5	8	7
2	7	9	8	4	3	1	5	6	2	4	8	7
1	3	8	6	5	9	2	7	4	1	3	8	6
7	4	2	6	5	9	8	3	1	7	4	2	6
8	6	5	1	2	4	3	9	7	8	6	5	1
2	9	4	8	3	7	6	1	5	2	9	4	8
1	7	3	9	6	5	2	8	4	1	7	3	9
4	2	7	5	8	3	1	6	9	4	2	7	5
3	1	9	4	7	6	5	2	8	3	1	9	4
5	8	6	2	9	1	7	4	3	5	8	6	2

|||UZTARRIAREN EKAINEKO LEHIAKETA|||||||
 IRABAZLEA



Joseba Albizu Lizaso
 Uztarrisiko bazkidea da 'Uztarría sukaldetan' lehiaketaren 162. irabazlea. Txipiroiak arrozarekin da prestatu duen errezeta.
Larrañaga hotolean bi lagunentzako otordua irabazi du. Argazkian irabazlea, prestatu duen platerarekin.

BIDEOA



▲ EIBARKO AZPEITIAK JOKALARI OHIAK

Eibar Futbol Taldea Lehen Mailara igo dela-eta, bertako jokalaririk izandako azpeitiarrak batzuekin hitz egin eta bideoa osatu du Uztarria.com-ek. Eibarren jokatu zutenean bizi izandako esperientziez eta taldearen egungo egoeraz hitz egin dute jokalaririk ohiek. Besteak beste, azpeitiar futbolari hauek aritu dira Eibarren: Pako Ibarzabal, Joxe Mari Bereziartua *Atxuiya*, Martxial Elorza *Martxialito*, Iñaki Arrieta *Pipillo*, Luis Mari Olaizola *Luki*, Iñaki Azkargorta *Kaki*, Roberto Olaizola *Tronpota*, Miguel Angel Iriarte *Txato*, Jabier Aristi, Xabier Alberdi *Beltza* eta Bixente Oiarzabal. Bideoa ikusgai dago Uztarriaren webgunean. uztarria.com

EFEMERIDEAK

1588

Emakumeei zigorra.

Emakume publikoak zigortzea erabaki zuten, asko zirelako.

1755

Zezenketak debekatu, eta...

Korrejidoreak zezenketak debekatu zituen eta, herriak kekatuz idatzi ondoren, Patronatu Errealeko idazkariak zekorketak debekua bainan ez zirela sartzen erantzun zuen.

1783

Saninazioetako mezetara.

Udala osatzen zuten guztiek San Inazio festetan elizkizun, meza nagusi eta korporazioetara joatea erabaki zuten.

📌 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak.*

Herria historian zehar liburua.

👤 **Egilea:** Imanol Elias Odriozola.

👤 **Argitaratzailea:** Uztarria Kultur

Koordinakundea.*

tonbela

lekua:
erdi kalean

prezioa:
**2 boleto
euro batean**

opariak:
 • Bi laguntzako 30
 afaririk gero
 • Talasoterapiako zirkuitua
 • Ite mozketak
 • MP3ak, argazki kamerak...



**Aiertza
Autoak**

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egingako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

**Telefonoa
943 08 09 13**

Ildefonso gurrutxaga, 12 behea



Gereziak

Udaberri bukaerak eskaintzen digun aukereta-ko bat da, gerezia. Fruta gozoa da eta, uste faltsuak alde batera utzita, duen azukre kantitatea –fruktosa batik bat– ez da beste fruta batzuek –sagarra, txerrena, mandarina– dutena baino handiagoa.

Diabetikoentzat aukera egokia da; tamainan jatean dago gakoa. Hamabi gerezik –100 bat gramo– 64 kilokaloria ematen dizkigute; 13-15 marrubik, bi mandarinak edo sagar txiki batek bezala.

Gereziek antioxidante ugari dituzte eta, horiei esker, gaixotasun kronikoen aurrean efektu prebentiboa dute. Azido folikoa, C bitamina, potasioa eta zuntza ere ematen dizkigu gereziak. Azido folikoa haurdunentzat eta haurrentzat oso interesgarria da. Potasioak tentsioa jaisten laguntzen du eta duen zuntzak, berriz, kolesterola jaitsi eta idorrieria saihesten. Bestalde, hiperurizemia eta gota dutentzat oso fruta ona da, azido urikoa jaisten lagundu eta askotan horrek sortzen duen mina arintzen laguntzen duelako.


Jaten dugunari etekin gehien ateratzeko, berta-koak eta garaian garaiko produktuak jatea komeni da. Garai aproposa, zapore eta ezaugarri nutrizio- nal ezinhobeak dituen frutaz gozatzeko.

Aukera egokia, eskuka gerezia!*



aitziber aizpuru

ALEX ALTOLAGIRRE udalekuetako koordinatzailea



1. Lanaren gogorrera?

Aurreko prestakuntza.

2. Alde onena?

Jende asko ezagutzen da.

3. Eta, txarrena?

Irteeretan lo gutxi egitea.

4. Ai, pazientzia...

Denok elkarrekin behar izaten dugu, eta asko.

5. Begiraleak koordinatu behar.

Asko dira, baina ez dut sekula arazorik izan.

6. Erantzukizun handiko lana al da?

Bai, gazteak hezitzen ditugu eta.

7. Ohiko eginbearra?

Begiraleak etortzerako dena prest edukitzea, eta begiraleei erraztasunak ematea ekintzetan.

9. Eramaten al duzue arrautzarik mojetara?
Egunero eguraldiari begira egoten gara.*

Julene Frantzesena

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Lamaidiak,
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

La Primavera
pizzeria

943 083 460

www.laprimaverapizzeria.com

lentzeria mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

domusa

uba
aholkularitza

Aholkularitza
irakala
laborala
kontabilera

Gestori lanak
Finken administrazioa
Gestio Inmobiliarjoa

Tlf: 943 137 325 Faxa: 943 137 275
Koparen Kalea, 43 - uba.ain@euskaltel.net

KIRURI
JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

di

- Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura 17:30/19:00
- Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

1



Amets baten mende erdia

Gure Ametsa soziedadeak 50 bete ditu. Hasieratik bazkide direnek badute zer kontatua. 📧 Mailo Oiarzabal

1. Javier Iraeta bazkideak 50. urteurrenerako soziedadearentzat sortu duen irudia da goikoa. **2.** 1966ko argazkia, danborradan irten zuten lehen urtekoa. **3.** Orain dela 25 urte soziedadearen mende laurdena ospatzeko egin zuten bazkarian ateratako irudia.



J oan den ekaina ospakizunetarako hilabetea izan dute Gure Ametsa soziedadean. 1965eko Errege egunean inauguratu bazuten ere, aurreko urtean, 1964an, sortu zuten elkarte. Horrenbestez, 50 urte bete ditu gaur egun Azpeitiko soziedade zaharretakoa denak. Mende erdia ospatzeko, besteak beste, bazkari baten bueltan omendu zituzten orain dela 50 urte soziedadearen sorreran parte hartu zutenak.

Korrale eta Riojano tabernetan elkartzen ziren bi mutil koadrila elkartu eta sortu zuten Gure Ametsa. "42-43 ginen", atera ditu kontuak Ignazio Odria *Txermena*-k. Elkartzeko gune propio bat sortu nahi zuten, eta amets horixe eraman zuten izenera... ametz bat ordeztuz. "Gure Ametsa izeneko soziedade bat bazen Enparan kalean. Hura desagertu egin zen eta izena hartzerik ba al genuen eskatu genien", kontatu du Joxe Esnaola *Panadero*-k. "Haiena z-rekin idazten zen, eta gurea s-rekin. Guk 'ametsa' izena nahi genion jarri, halaxe zelako guretzat soziedadea, gure ametsa. Haiena, berriz, ametsa zen, zuhaitza bezala", azaldu du Joxe Mari Zelaiak.

Soziedadearen ibilbidearen urte gehienak gaur egungo egoitzan egin ditu Gure Ame-

tsak, Olazko Andre Mariaren plazan; orain dela 36 urte sartu ziren bertan. Aurreneko lokala, ordea, Errebalean izan zuten. Fernando Olaizolak lehenengo tailerra izan zuen lekua zen, Xaguerena eta Astarberena, eta bazkideen artean atondu zuten egoitza. Denek dute gogoan lokal haren pareta bat zulatuta atera zuten sotoa. "Otarreka lur atera genuen, mordo", dio Mikel Larrañaga *Enbortxo*-k.

Zaharren alde lanean

Landetako Egi-Zalerekin batera, Gure Ametsa da gaur egun sansebastianetako danborradan parte hartzen duen talderik beterranena. Soziedadea inauguratu eta urtebetera, 1966ko danborradan, irten zen lehen aldiz soziedadeko sukaldarien taldea.

Danborradako taldea gauza berezia da soziedadearen sortzaileentzat, baina bada bereziki harro sentiarazten dituen beste kontu bat. Herriko adinekoentzako lehen elkarte, Aitonena izango zena, Gure Ametsakoek sortu zuten. "Guk Azpeitiarentzat egin dugun gauzarik inportanteena, Aitonena sortzea izan da", Altunaren esanetan. Egitasmo hura martxan jartzeko egin zuten lana gogoan



Ezkerretik eskubira, Joxe Esnaola, Mikel Larrañaga, Joxe Mari Zelaia, Inazito Urrestilla, Manuel Altuna eta Ignazio Odria, soziedadean. ||Mailo Oiarzabal

dute soziedadeko kide beteranoenak. Lokala Udalarri eskatu zioten, orain Baigera I dagoen toki berean. Dirua, berriz, herriko lantegi, denda eta abarretatik iritsi zen. "Nagusiei, langile kopuruaren arabera hainbesteko bat eskatzen genien. Gero, ordezkari sindikalekin hitz egiten genuen, langileen ekarpenak bideratzeko", azaldu du Esnaolak. Proiektu hari eskaini zizkioten orduak eta ahaleginak fruitua eman zuten, eta 1970eko hamarkadaren hasieran jubilatuek beren egoitza zuten.

1972an hasi eta 25 urtez, gainera, Zaharren Eguna antolatu zuen Gure Ametsak.

Emakume bakarra

Gaur egun 79 bazkide dira Gure Ametsan, hasierako talde hartako hemeretzi lagun tartean direla. Gehieneko bazkide kopurua 85ean dute ezarria eta, beraz, bazkide berrientzat atek zabalik dituztela nabarmendu dute. "Orain aprobetxatu, ia batere ez dugu kobratzen eta", dio Manuel Altunak.

Azken urteetan bazkide gazte dezente sartu da. Hala ere, emakume bakarra ageri da bazkideen zerrendan. "Baina emakumeek badaukate bazkide egitea, e? Galerazita ez da inoiz egon", azpimarratu du Inazito Urrestilla Lapatx-ek. Eta hala da, berez; estatutuetan halako debekurik ez dute. Baina... "Aurreneko emakumeari baiezkoa eman zitzaionean, batek esan zuen, 'hau laster emakumez beteko duk!'; kar, kar, kar. Niretzat ez litzateke arazoa, e?".*



TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Uztailaren 16an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47

KOMUNIKABIDEAK

AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26
IKASTETXEAK	
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	BESTERIK	
EAJ	81 55 70	Xoxoteko aterpea	58 10 07
Sortu	15 72 00	Eregi	943 08 06 88

FARMAZIAK (UZTAILA)

EGUNEZ

1-7-12-13-16-22-30	2-5-6-11-15-17-21-26-27-29-31	3-9-18-24-28	4-8-10-14-19-20-23-25
Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 811274	943 815974	943 811350	943 811949

GAUEZ

1-16-22	2-5-6-15-17-21-26-27	3-18-24	4-14-19-20-23-25	7-12-13-31	8-9-28-29-30	10-11
Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 811274	943 815974	943 811350	943 811949	943 851966	943 850660	943 851235

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Astegunak: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igande eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekainaren 14tik irailaren 14ra, egunero, 11:00-20:00 **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Astearte-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI

Bilaketa alfabetikoa

A (71)	B (76)	C (2)	D (20)	E (65)	F (12)	G (35)	H (18)	I (31)
J (13)	K (63)	L (37)	M (35)	N (3)	O (20)	P (52)	S (12)	T (25)
U (6)	X (6)	Z (22)						

A

Abanikoa	Birziklaezina
Adreilua	Garbigunea
Adur-zapia Poltsa batean.	Oihalen edukiontzia
Aerosola ontzia	Ontzi arinak
Agenda	Papera eta kartoia
Aire freskagarriaren ordezkio pieza	Ontzi arinak
Alanbrea	Garbigunea
Albuma Argazkien albuma: errefusa	Papera eta kartoia
Aldizkari-gordetzekoa	Garbigunea

HONDAKINAK, NORA?

Urola Erdiko Mankomunitateak hondakin bakoitza zein edukiontzitara bota argitzen duen atala jarri du eskuragarri. Horrez gain, 'Gaika' mugikorrerako aplikazioa ere egin dute, eta doan deskargatu daiteke jada.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

MAITE ARANBURU

Itzaltzu (Nafarroa)

“Itzaltzuaratu den azpeitiarra naizela esan daiteke”

Orain dela hamabi urte iritsi zen Zaraitzu ibarrera, bertan gelditzeko. Besaro landa hotelean ari da, familiarekin. 📌 M. Oiarzabal

Noiz eta nola iritsi zinen Itzaltzura?

2002ko irailean etorri nintzen. Pare bat hila-bete lehenago nire bikotekidea dena –Mauri, itzaltzuarra bera– ezagutu nuen eta bi aldiz pentsatu gabe etorri nintzen. Hasieran Zaraitzuko AEK-n irakasle lanetan hasi nintzen eta asteburuetan Azpeitira joaten nintzen, Zuhatz tabernan lana egiten nuelako. AEK-ko lanak asko lagundu zidan herriko eta bailarako jendea ezagutzeko. Hilabete batzutan bi lanak uztartu ondoren, Itzaltzun geratzeko erabakia hartu nuen. Gero suertatu zen landa hotelarena. Mauriren gurasoek ostalua eta jantokia zuten herrian. Erretiroa hartzeko gogoz zebiltzan eta guk ostatuarekin aurrera jarraitzeko apustua egin genuen. Berrikuntza batzuen ondoren, 2004an Besaro landa hotela kudeatzen hasi ginen. Hamabi urteren buruan, esan daiteke itzaltzuaratu den azpeitiarra naizela.

Nolakoa da Itzaltzu?

Nafarroako ipar-ekialdean dagoen udalerrria da, Pirinioan. Zaraitzu ibarreko herririk txikiena da. 44 pertsona gaude errolatuta, baina

20ren bat gara urte osoan zehar bertan bizi garenak. Batzuentzat ezezaguna izango den arren, askok Gartxoten kondairari esker ezagutuko dute Itzaltzu.

Zer moduz doakizue landa hotelean?

Oso kontent gaude. Hasiara nahiko gogorra izan zen, Mauri eta biok bakarrik hasi ginen eta lan asko egitea tokatu zitzaigun. Orain gutaz aparte beste bi langile ditugu eta oso gustura gaude.

Azpeitiko bezerorik inguratzen al zaitzue?

Tarteka agertu ohi da norbait. Azkenak orain hilabete eskas egon dira, 15 bat laguneko txirrindulai talde bat. Hemen inguruan oporretan edo mendira etortzen direnek ere beti egiten didate bisitaren bat. Egia esan, ilusioa egiten du!

Itzaltzutik zer beharko luke Azpeitiak?

Hemengo paisaia eta lasaitasunetik pixka bat...

Eta Azpeititik zerbait bai, Itzaltzuk?

Hor egunerokotasunean duzuen euskararen presentzia.*



1

1. Sancet-Aranburu familia: Mauri eta Maite, Amane eta Peru seme-alabekin. 2. Itzaltzuko herria. 3. Maite Aranburu Elkorretan, Gartxoten kobazuloaren sarreran.



2



3

Hau, hori eta hura eta Agustin

Lehengo batean, hau, hori eta hura irakurtzen ari nintzela, anaia gaztea, hemeretzi urteko Ramon, atxilotu zutela esan zidaten. Gernika ondoko Forua herriko institutuan ikasten ari zela, nonbait, Francoren argazkia paretatik kendu eta harrika bota omen zuen lurrera. Inguruan hainbat ikasle zituen, eta batek baino gehiagok etxean kontatu zuten. Eta haietako baten baten etxekoari gustatu ez Ramonek egin omen zuena. Guardia zibilaren kuartelera joan eta salaketa jarri zuten. Handik bi egunera atxilotu zuten Ramon. Salaketaren atzean inbidia zegoen, seguru, baina denuntzia hura nolabait jantzi egin behar guardia zibil inzibilak eta beti erabiltzen zituzten hitz haiek eskribitu zituzten ohar ofizialean: "Injurias graves al Jefe del Estado". Kuartelean astindu egin zuten, iraindu, umilarazi eta, halako batean, Larrinagako kartzelara sartu zuten. Lau hilabete egin zituen bertan... Lau hilabete haien kondena bete eta gero, guardia zibilak La Salveko kuartelera hots egin zion. Han, lehengoa berriz ere: mehatxu egin zioten, iraindu, eta igande eta jai egun guztietan bertara joateko agindu zioten, goizeko hamarretan ttanko beti. Han, paper bat sinatu eta gero, eta, batez ere, zaindariari gogoak ematen zionean, libre zen Ramon berriz. Horrela joan zitzaion urte hura, eta joango zitzaion hurrengoa ere, Ramonen amak, bidegabekeria hartaz kokoteraino eginda, "nahikoa da!" esan izan ez balu: "Kitto! Hemendik atzera ez haiz kuartelera gehiago joango. Datorrena datorrela! Hire ama nauk, eta guardia zibil zikin horiek zer edo zer nahi badute, datozela nire bila! Ikusiko diagu orduan!". Ramon ez zen La Salvera itzuli, ez igande ez jaiegun, eta guardia zibilek ere ez zioten hots egin, ez zitzaizkion atzetik bila etorri. Garaia heldu zenean, jarrera onaren agiria ukatu zion guardia zibilak, eta ezin izan zuen autoa gidatzeko agiria atera. Franco zuloan sartu zuten arte, eta amnistia legea eman zuten arte ezin izan zuen autoa gidatze-



■■■■■■■■■■■ **miel a. elustondo** ■■■■■■■■■■

■■■ Garaia heldu zenean, jarrera onaren agiria ukatu zion guardia zibilak eta ezin izan zuen gidabaimena atera

ko baimena atera. Horrekin batera, ordea, soldaduskara joan zenean, aurretik izan ez zuen zoria izan zuen. Gazte izanagatik ere, sukaldari jaioa zen Ramon, amaren sukaldetan endredoan asko ibilitakoa, hau, hori eta hura dastatzen, hau, hori eta hura galdetzen, eta, horrela, koronelak bere yaterako nahi izan zuen Ramon, semetzat hartu zuen ia-ia, eta nahizu-nahizu eman zizkion etxera joateko baimenak.

Horrela Ramon, Francoren argazki hura, guardia zibilak, eta koronel hura. Gabriel Garcia Marquezen liburuetatik ateratakoa izan zitekeen galiziar hura.

Klarionak Francori

Lehengo batean, hau, hori eta hura irakurtzen ari zela, etorri zitzaion burura: herriko institututik kanporatu omen zuten Agustin. Hamalauren bat urte izango zituen, Francoren argazkiaren kontra klariona tiraka harrapatu omen zuten...✳



TELEFONO FINKOA

5.000 minutu finkoetara

24,18 €

(bez barne)

60 minutu mugikorretara

Eta 100min/ 100MB mugikorrarekin **27,81€** BIAK!
(bez barne)

TELEFONO ASKEAK



Droxio B45, 150€
4,5"



Droxio B51, 139€
5"

BETIRAKO PREZIOA ETA IRAUNKORTASUNIK GABE!

EGIN ZURE KONTRATUA DENDANI!

Banatzaile baimendua

JAZZTEL

TELEFONIA MUGIKORRAK / OSAGARRIAK / TABLETAK / TELEFONO ASKEAK
TINTA BATERAGARRIAK / MUGIKORREN ASKATZEA / KARGAKETAK



ZATOZ AZPEITIKO DENDARA

Foru ibilbidea 5zkoa

Telf: 943 56 96 96

IREKIERA BERRIA BEASAINEN

Nagusia 21 zkoa

Telf: 943 98 89 59


**TOP
MÓVIL**

landeta
brikodenda



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 81 25 66 - mug. 607 75 88 01 - landetabrikodenda@hotmail.com

www.landetabrikodenda.com



*Erlaxa
zaitez*

Hau da zure unea

Lokartu gabeko sedazioa!

Segurua da eta oso eraginkorra:
dentistarekiko antsietatea gainditzen laguntzen du



horzkari
hortz osasun klinika

Garmendi Otaola, 5
Beasain
T.943 16 10 18

Iberotarren plaza, 4 behe
Azpeitia
T. 943 81 50 52

2014ko Uda



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1
Tel/Fax: 943 81 16 50